


# Juan Garmendia Larrañaga

## Nikolas Ormaetxea “Orixe”-ren etnologiazko zenbait gai



33



**1988.** Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai : Iru itzalditan oiñarritzen dan idaz-lana / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Kriselu, 1988

**1998.** Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai : Iru itzalditan oiñarritzen dan idaz-lana / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Mitos. Etnografía.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 5). – Donostia : Haranburu Editor, 1998

---

## 2007

Nikolas Ormaetxea "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai / Juan Garmendia Larrañaga ; azala Yulen Zabaleta "Yulen". – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 32 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 33). – ISBN: 978-84-8419-096-7

---

### Azala

Yulen Zabaleta "Yulen"



---

## EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

# **Nikolas Ormaetxea “Orixe”-ren etnologiazko zenbait gai**

Juan Garmendia Larrañaga

**Orria**

---

Kredituak

Nikolas Ormaetxea “Orixe”-ren etnologiazko zenbait gai ..... 3

**NIKOLAS ORMAETXEA**  
**"ORIXE"**



## Nikolas Ormaetxea «Orixe»

---

Nere ekintza onen barnean, «Orixe ta etnologia» izen buruari erantzuntxo bat emateko, «Euskaldunak» poema izango det oiñarri. Baiñan, *dena dela*, Elduko apaizarena, egokiagoa izango da «Orixe eta zenbait gai etnologiko» izen buru azpian nere urratsak ematea. *Zenbait* itz au garrantzitsua dugu, berak erreztu egingo bai dit nere ibilbidea.

«Euskaldunak Poema» dala ta, bat baiño geiago «Orixe»-tzaz mintzatua dugu, bere iritzia emanaz. «Orixe», eta berarekin Orexan ar-eman batzuek izandakoa naiz, mundu zabalaren zear ibili bazan ere, beti orexarra izan zen, jaioterriko kutsuari eutsi ziona, bear bada berak igarrigabe.

Zer gai erabili zitun «Orixe»-k «Euskaldunak» osatu eta borobiltzeko? Berak zeatz ikusi eta bizitzea izandu zituanak, batik-bat. Bere ume/gaztee-tako munduko gaiak, bere girokoak.

Eta au onela izatea ez da onuratsua bakarrik, baizik bear-bearrezkoa etnologi aldetik ikuspegi baten ondorioz lan benetan interesgarria dela esateko.

Itz gutxitan adierazteko, axaleko zabaltasun bateri baiño garrantzi aundia-  
goa ematen bait diot sakontasunari, barrentasunari. Bizitutakoa ikusi, ikusi-  
takoa idatzi. Egitazko ekintza, ekintza ederra.

Oar gaitezen ere, «Orixe»-k idatzi zizkigun etnografi-gaiak kondaira direla, geienbat. Igaro eta ia ia aaztu eta ildako mundu baten inguruan bizi izan ziren oiturak, egun lurperatuak, geientxoena.

Nere gaurko pausoak nundik-nora ibiliko dira? Bete-bear berdintsuetan galdera berdiña. Guretzat interesgarria dan «Orixe»-ren lana irakurriko dizuet, eta besterik ez?

Ontarako, ni emen arkitzeak zentzugabekeri bat besterik ez litzake izango. «Euskaldunak Poema» gureganatu eta kitto.

Nere ekintza, ba, «Orixeren» idatziari neronen ikerketa-lanak uztartzea izango da. Nere elburu eta naiaren barnean «Euskaldunak Poema» egiztatuz.

## Pestaburu

«Orixek» bereziki aipatzen digu Huitzi izeneko uriska.

Nafarroa zarrean Larraun'en Uitz  
belar goxo tartean eper-kabi iduri.  
Belardien inguruz kabi orren esi  
baso maitea dago, ikazkin-lantegi. (1)\*

Aipatu det *Ikazkin-lantegia*. Idatzia det gure basoko aberastasunari esker, gure artean olak ugari agertu zirela. Sutegietan eta berdin ere beste lantegi mota askotan bear-bearrezkoa bai zan egur-ikatza.

Neronek entzuna det nola Leitzan etxera zijoan gizon bateri beste bat arbolatik zintzilik agertu omen zitzaion.

An onela, oiñezkoak galdetu omen zion arbolakoari:

–Zer aiaiz or, zintzilik?

–Eun karga ikatz ostu nitun eta errestituzioaren bearrean arkitzen naiz, munduan bueltaka ibiltzeari utzi eta zeruan sartzeko.

–Oien bearrean baao, Ola Zarrean sartuitzak. Leitzan izan bai zan «Ola-zarra» izeneko lantegia.

Gure Lege-Zarrak etzuten ikazkiña aaztuta uzten. Gipuzkoatik kanpora ikatza ateratzea debekatua egon zan, bertan, emen, askoren bearrean bai-geunden.

Danbolin-soiñua da Amazkar'en bera (29)  
–Zubietako Pontxo urteroz errira–;  
kabia aizatzen diton txorien antzera  
etxe-barna garbituz aurrak atarira.

Danbolin-soiñuarekin eta Zubietako Pontxo danbolinteroarekin neka-zari/artzai gjiroko eskolarreko txistulariak datorzkit burura. Musika idatzian ez-jakiñak, baiñan belarri oneko joale trebeak. Gizon errikoiak.

Zubietako Pontxorekin aipatuko ditut Arribeko *Juanbeltz*, Gaintzako *Arraizti*, Intzeko *Domingonekoa* eta Azkarateko *Arbitarra* –iru auek Naparroko Araitz Ibarrekoak–. Baita ere Berastegiko Lazaro Atxukarro, itzaia ere zana.

Txistulari berezia Atxukarro au. Txistua eskubian erabiltzen zun. Ibarreko «Azkue la Nueva» edo «Pertzola» izeneko lantegian, Oreatatik azken ardatzaundie karriatzea txistulari-itzai onek egin omen zuan.

Bedaioiko Joan Antonio Sarasola ez det aaztuta utziko. «Orixe»-rekin ar-emanak izan zituan txistularia. «Orixe»-ren adiskidea.

---

\* Oharren zenbakiek *Euskaldunak* orijinalari dagozkie.

Sarasola Bedaioko «Zumitzketa» baserrian jaiotzen zen, 1887 garreneko martxoaren 30an. Beraz, ez da izan zaarra gizon sendo eta arpegi zabalaren jaiotzaren eun urtebetetzea.

1963 garren urtean, «Orixe»-ri ilgerozko omenaldia Tolosan egin zitzaionean, Joan Antonio Sarasola, ordurako txistulari zaarra, borondate onenarekin kaleratu zen eta partaide maitatsua izan genduen.

Basa gizon, ikazkin, egurgille ta arotz,  
zortzian bein mezara, Kristau-egitekoz,  
ta atsaldez erriari eragiteko poz;  
gaur pestan usaiera Martsan-bera datoz.

Donamarian jaso nuen nola *bizitu omen zen* edadeko emakumezko bat, bere naia bein da berriz erri guztiari adierazten ziona: ildakoan berarekin batean ilkutxan dirua eramateko naia.

Itzan gure amona eta errian bai zabaldu ere berarekin bere txanponak eramaten zituala. Benetan gauz tentagarria bera, batzuentzat beiñepein.

Au onela, luzaro etxoin gabe, gaubeko illuntasuna lagun zutela, bi edo iru gizon bai azkar asko eldu amonaren illobira, eta il-kutxa irekitzeari ekin. Gau artan bertan, ikazkin batzuek jakiñik apaiz etxean txerri-iltzea izan zela eta gauaz gantxo batetik zintzilik etxeatarian aizeztatutzen utziko zutela, mendiari bizkar eman, txondarra aaztu eta kalera jatxi. Kanean txerria lapurtu eta arpillerazko zaku baten sartu eta bai aguro ere beren txabolarako bidea artu.

Bidean atsedeen-alditxo bat ondo etorriko zitzaiozela ta bizkar zama ille-rriko arresi gaiñean utzi.

Zama utzirik bat-batean ikazkiñek bai ikusi ere illobi ingurun argi-ontzi baten illargia, etenik-gabeko mugialdian. Beren ustez arima erratu baten aurrean arkitzen ziren, eta bildurturik, txerria aaztu eta korrika ta presaka mendiruntz joan, mendiruntz izkutatu.

Gaubeko ixiltasun artan, diru-billatzaleak bai entzun ere soinu atsegiña etzana, beraientzako zelatari batzuen urrats soiñua, eta altzuten azkarrena illerria uzteko asmoa artu.

Bidean arresi gaineko zakua ikusirik, txerria atera eta bere orde z ildako emakume zarra sartu, esanez: ¡Ez diau denbora alperrik galdu!

Urrengo eguna zabaldu zun, eta ikazkilleak –Donamarian entzun bezala– txerri billa bai itzuli ere. Utzitako zakue bizkarrean artu eta txabolara berriro. Zaku barnean etzuten txerria arkitu, baizik bezperan lur-emandako amona baten gorputza.

Ziurtasun guztikin, ikazkillentzako gertaera onen errudun apaiza agertzen zan. Apaizak adarra jozien eta asperkeri bat merezi zun.

Ontarako, apaizan beorraren zaldikua larrean arkitzen zan eta oni ildako amona lotu zioten.

Artzai batzuek izan zuten ikuskizun au, benetako arrigarria, eta apaizari bereala esan konjuroa bear bearrezkoa zala.

Apaiza beor gaiñean eldu omen zan amona eta zaldikuaren ingurua, eta bai konjuroa egiñ ere, ezkerrezkubi, bein eta berriz. Baiñan bein eta berriz ere zaldikuak iges egin bearrean bere amaren ingurura bildu.

Apaizak parregarrikeri au ikusirik, etxeruntz laisterka aldegin eta ateburuan makurturik barnera eldu, atzetik, bereala, laisterka ere, zaldikua. Baiñan ateburuan amona etzan makurtu eta zerria egon zan kakotik zintzilik gelditu omen zan. Bere geiegizko diru zaletasunak, amona bi aldiz txerria antzeratzea eraman zun.

Txabola umil bat izaten zan ikazkiñaren basa-etxea, eta txabola aiek etzi-  
ran berdiñak izaten, eraikitzeako orduan lurra zerikusi aundia izaten bai zuan.

Ikazkiñak, errantxeroa etzun urrun.

An da talogillea, Erantsun'go Koxko, (89)  
kana t'erdi luze eskas, goiez-beiaz sendo  
-arbi-eraitekoan nonbait aziak jo-,  
talogiteko beintzat ba duke balio.

«Orixek» ikazkin talogille Koxko aipatzean, Lazkaon entzundako ipuitxo batetzaz oroitzen naiz.

Ataungo Agauntza mendian txondarrean ari ziran ikazkin taldeak, bear-bearrezko errantxeroa bazun. Goizean-goiz taloak prestatu ondoren txondar lekua joaten zan, gosaltzeko deia egiñez. Baiñan egunero txabolara itzultzen zanean, talorik ez.

Goiz batean gure errantxeroa izkutatuta gelditu omen zan, eta nun ikusten dun bere begien aurrean lapurra etsai bat zala.

Ikazkiña atzera begira etzan egon; artu zun taloburni guritua eta berarekin aldenik-alde deabruari sabela zulatu zion.

## Artazuriketa

Agiz Samigeletako artoak ebaki; (1)  
alorrean an-emenka toxetan eraiki...  
tokika nekazariak zer egin ba daki  
ta ala beranduko orde zereiten goiz asi.  
Arta-zuriketa zuten gau ez Errekalde'n... (21)  
neska-mutillek bikoka asiak ziraden.  
Urtean zer zurru-murru jaso onen ta aren,  
arta-zuritzekoan zituten iraultzen.



Gauean ara bilduta jarduna ba dute: (33)  
eguraldi-asmakari, ipui ta bikote.  
Irri-karkara ta kantu, loa aiza dezate;  
gaueko lo-bildua biamonez ase.

Baserriko ogibide edo bizimodu inguruan biltzen ziren lan-taldeak, era berean lan-festa biurtzen zirenak.

Nekazari giroan errez entzuten zan: *Artazuritzea joan beau?* Langintza saio au neska mutil gazte taldeak osatzen zuten, eta lantokia biurtutako baserrian intxaur, gazta, ogia eta ardo urritasunik etzan izaten.

Errementari artoa edo errementari garie izenarekin ezagutzen zan urteko errementariari ematen zitzaion artoa edo garia, lanabesak zorroztu truke.

Azpeitiko Loiola auzoan garobiltzailliek lana amaitu ondoren afaltzera biltzen ziren. Garobiltzaillien afarira.

Berastegin, laiaketa bukatu ondorengo afariak *zoi-afarie* izena artzen zuan.

Gernikako Murueta auzoan *galaparia* izena zeraman gari-eraiketa ondorengo afariak eta garijorraillien afarie deitzen zitzaion Azpeitiko Loiola auzoan ekintza ontan ibilitakoari ateratzen zitzaion afariari. Garia aipatuaz, adieraziko det *txanketa* izenarekin ezagutzen zala auzo ontan garia-jotzeko arria.

Soroko-eraiketa, ez baratzekoa, amaitu ondorengo afaria *galafaixa* zan Eskoriatzan eta *galapaixa* Bergarako Elosu auzoan. Afari ontako partaide ziren lan saioan jardun izan zuten guztiak.

## Gaztainaro

Tiroek ere bana banaka (681)  
ematen dute gaztigu,  
aurrena bakan eizeko gisan,  
gero, gerra-antzera, usu.  
Oriek oso isil dirala  
gaztaiñak dira xigortu.  
Ataka zabal, erreak diran  
noiz nai ditezke aztertu.

Garai bateko Euskalerrian gaztaiñak garrantzi txikia etzana izan zun. Ikus ditzagun abestitzak. Otorduetan mai-azken edo gaiñekoa –onela entzun bai nun Legazpiko «Telleriarte» auzoan– gaztaina arrunt izaten zan.

1766 garrengo *matxinoen* eskeetako bat amarrenaren legearekin gaztaña lotugabe egotea izan zan.

Tolosako Eliz Nagusiak, alboetako baten eraskin bat zeraman, «amarran-degi» izenarekin ezagutu genduana. Ezkurran entzuna det bertako «Amarran-degi» baserrian neskato jentil bat apaizak kristau egin zuala.

Baserriko lartzarekin eta gure sutondo zaar da keetsu aiekin ain elkarturiko gaztañak erretzeko danboliña, aurrerakoi edo eboluzioaren barnean sortutako tresna dugu, eta Leitzan, beste uri batzuetan bezala, sartana edo zartana deritzana.

Naiz erri batzuetan, aipaturiko Leitzan esate baterako, danboliñak sartana izena eraman, asmakizun au metalezko galbai-modukoa zan, eskuleku eta lagatzean kokatzeko balio zuen burni erten batez zearkatua.

Azkuek dio, *sartagin*, gaztañak erretzeko baliatzen diran danboliñak diela, eta *sartan*, gaztaiñak erretzeko danboliña. Eta gai berari buruz, Larramendiri irakurria dut:

Sartagi aundiago ta sakonagoa, baia bezala zuloz betea ta kider makil-luzeduna, euskeraz zartana deritzana, eta gaztaiñ erretzeko darabiltena.

Berastegin ere tresna oni noiz-bait zartana zeritzaion eta ontzi birakariari danboliñe esaten diote.

Zeraingo «Bengoetxea» baserriko Isidro Aizpeoleak esan ziranez –ezagutu nuanean larogei urtetik gorako gizona–, bere aitak ez omen zun Santu Guztien egunarte gaztain errerik jaten. Ordurarte gaztain egosik jaten omen zitun.

## Iruleak

Zortzi illabete negu ba da naiko luze; (9)  
lio-lanak guzia eralgiko dute.  
Betiko negu ori bikaturik ere,  
atso-kontuak errez igaro dezake.

Goizetik gauerdira eguna luzatuz, (13)  
lonaia aizatzen dute ipuiez ta kantuz.  
Euskaldun ele-ederrak urtero berrituz  
agoz-ago 'omen'-ka gerora bialduz.

*Liñugintza* –Eskoriatzan jasotako itza–, lan/festa billera, arrunt gazteak izaten ziren antolatzalleak. Illunabarrean lanak festa kutsua artzen zuan, festari asiera ematen zioten eta atseden alaitsu ura gabaz amaitzen. Arratsaldekoa edo meriendatzako etxeko neskak ogia eta kanpokoak esnea jartzen zuten. Mutillek ardo bearrean ez ziren gelditzen, eta taldearen alaigarri panderoa edo inpernuko aspo-soinua zuten.

Neskak, ekintzari muxin egin gabe, lan-tresnakin doiñu berezia lortzen zuten. Eta soiñuarekin, abestia.

Lan/festa amaitu ondoren, neska-laguntzea zetorren.

Neskak beretzat digu landu lierria, (53)  
amaika urtetatikan aitak berezia.  
Lio-lanetan baita ain ongi ikasia,  
bilduxea bide du ezkontzeko ornia.

Humboldt baserrietaz mintzatzen denean, adierazten du:

En la sala un telar para hacer el lienzo de los menesteres de la casa. Pero esto no hay en todas partes.

Ba ziren euntegi aundiagoak. Euleak ogibidea zuan euntegiak. *Poco se gana hilando; pero menos mirando*, entzutea izan nuan aietako lantegi baten.

1936 garrengo urtean lanetik aldendua, ezagutzea izan nuan Dimako azken eulea.

Gaur goizean baliz bezala oroitzen naiz nola nere etxera etortzen zen ia astero Errezilgo eulea, Jose Inazio Azurmendi, 1962 garrengo urtean illa.

Nere ikerketa lana dala ta, agurtu nuan eta itzaspertu interesgarriak egin Arbizuko azken euntzalearekin, Jose Joakin Razkin Lazkoz, orain dela amairu urte illa.

Euntzale oni, napar kana bat (0,785 m) luze eta iru kuarta zabal, sueldo bat ordaintzen zioten, eta bost kuartakoa eun-gintzeagatik, amar xentimo geiago. Sueldo baten balioa ogeitabost xentimokoa zan.

Arloa bukatuxe, gauerdi aldera, (369)  
ezin utziko dute linaien ondarra.  
Nai ta nai ez erre edo iruin ein bear da;  
ostera billa dator gauerdiz sorgiña.

Danbolin'en andreak komeri egiten (373)  
atxo guztiak ditu parrez urrazten.  
Amonak sukaldea txukun du ekortzen,  
aingeruk, ez sorgiñak, dantzatu ditezen.  
Beteluko sorgiñak orduko bil ziran  
Lekunberri-ondoko bideburu artan.  
An egin zuten dantza uju tarrapatan;  
aurrek loa gozoa etxe oialetan.

Kiloaren aurrean exeririk ikus izatea izan genduan andrea, ikuskizun ernagarria iduritu zitzaigun. Ez baiñan ikuskizun ikuskizun bizi bat bakarrik, baizik ere agerkai gogarazlea, atzoko, igarotako antzin batera garamazkiana.

Irute-ertia bere amarengandik ikasi zuan, kiloaren aurrean exeririk eza-gutu bai-zuan. Urte osoan, baiñan batez ere neguko illun-beltz eta gogorrean, utzieziñekoa zan sendiaren sukalde keetsua. Kanpai zabaleko lartzaren aurrean, erri gertuenena ere urruti gelditzen zan garai aietan, amak, bere lanari utzi gabe alabari kontatzen zizkion berak ere bein da berriz bere aurrekoei entzundako gauzak. Naita ibili gabe, ipuia eta kondaira errez naastutzen ziren giro artan. Benetan igarotako gudak eta jentillen ipuiak naastuak ziren. Gertatua eta irudimenean sortua, naaspilatzen ziren.

Oroi gaitezen «Orixek» ain egoki abestua:

Zortzi illabete negu ba da neiko luze:  
lio-lanak guzia eralgiko dute.  
Betiko negu ori bikaturik ere,  
atso-kontuak errez igaro dezake.

Mugarik gabeko ipui bizitza aipatu digun ezkeroz, zerbait geixeago esan dezagun onetzaz.

Aria egiten zuten emakume aiek egin oi zuten gaberdiko afaria, *sorgin afaria* izenarekin ezagutzen zuten. Zer izaten zan edo izaten da izen onekin deritzen zaion afaria, erriko-festetan, Gabonetan eta abar, egin izandu dana? Bigarren afaria, aurrenekoa baiño ariñagoa, geinbat, gauerdin edo ordu txikietan egiten dana.

Igoako etxe baten errokara biltzen omen ziren, eta gaubero, amabikin bat-batean eliz dorreko iru ezkiladanda, geldiro-geldiro joak entzun.

Aurreko egunetan, neskan ustez gertaera ori mutillen jostakizun bat besterik etzan. Baiñan gauba joan eta jauba etorri, dandakak jarraitzen zuen, beti ordu berean. Au onela, neskak aintzat artu zuten gertaera eta bai mutillei esan. Ordun gazte guztik oartu ziren arrigarrizko zerbait elizan gertatzen zala.

Gau baten, gazte guztik eliz atarira eldu ziren eta bai aguro ikusi ere atea erdi irikin zegoala eta aldare nagusin, bi kandela piztuen erdin, aspaldi ildako erriko erretorea meza emateko jantzita, meza emateko prest, ateari begira.

Artzai bat bakarrik ausartu omen zan apaizarena joatea. Bereala meza lagundu zion eta erretorea bai betiko izkutatu eta gauerdiko ezkilak mututu. Apaizari zer gertatzen zitzaion? Meza baten bearrean arkitzen zala purgatorioa utzi eta zeruan sartzeko.

Baliarrainen, liñuarekin arie egiteko neska kuadrilla baserri baten biltzen zan. Baserri au «Garate» izenekoa izan zeiteken.

Neska aietako bat, izutzen etzana, gauetz lan saioa amaitu ondoren txistuka etxera bidea artzen zun.

Bere lankideak oitura au ezaguturik, erabaki zuten egun baten izutu egin bear zutela. Ortarako arbi-ondoa gizon arpegiaren tankera emanetz, eta kandela piztua barnean zuala, kanposantu inguruan, igaro bear zun biderdin utzi zuten.

Urrengo egunean, oitura zun ordua eldu zanean, neska bere jakiñeko bidean aurrera joan zan, eta ildakoaren irudi gixa arkitzen zan arbi-ondoa urbildu zanakin bat-baten bai azkar ostikoz *ildakoa* jo eta txistu egiteari utzi gabe aurrera jarraitu.

Neska bildur-gabe ura «Irabi Azpi» baserrikoa zan eta andik bereala izkutatatu omen zan.

Arabako Ullibarri-aranako urixkan biztanle izan omen zan Juan de Simón izeneko gizona izen berdiñeko etxean. Gero, Juan de Simonen sua zanak, Nikolas López de Ziordiak, etxe berean izan zuan bizilekua. Etxe ontara bein baiño geiagoetan joana naiz, Nikolas zana, erriko zurgin artetsua, adiskidea bai nuan.

Beraz, aipatutako Juan de Simonen aita ardatzean ari zala, gaubez eta krisaillu baten argi laguntzarekin bakarrik, nun jartzen zaion aurrez-aurre erraldoi bat isats luze batekin. Bereala, bat-batean, azaldu bezela bildurgarritzko zatar-ikuskari ura izkutatatu omen zan. Eta bereala ere, irulea ekintzari utzirik sendiaren babesera bildu.

Goizuetan, *Kalu* –urdai azalaren izena– ikazkiña zan, eta bere andreak, egunero, illundutakoan, txabillan ariya egiteari ekiten zion.

Au bere lanean ari zala, tximinitik beera lamia bat etortzen zitzaion eta oiturazko oliua eskatu eta emandakoa bai eran ere.

Bein batez andreak gizonari adierazi zion eguneroko bisitalari berezi onen berri. *Kaluk*, au entzunik, andreaken mantoia jantzi eta bere lan-lekua ere artu zun.

Lamia eldu zanean, onela galdetu eta esan omen zion txabillan ari zanari: Nor aiz i?, leenago *pirra pirra* aitzen itzanen, eta orain *koka koka* aiaiz. *Kalu* ez bai zan lan ontan trebea eta txabilla lurrera erortzen bai zitzaion, bein da berriz, *Koka koka* soiñua atereaz.

*Nor aiz i?* lamiak galdetu zionean; *Kaluren* erantzuna au izan zan: *Neurren neurren buru* –neroni neronen buru–. Au esanik bat batean olio irakiten zeukan zartagia artu eta lamiari arpegira bota. Onela lamia bai azkar asko sartutako bidetik, tximinitik aldegin, karraxika.

Beste lamiak au ikusirik, arpegia erretakoari onela galdetu omen zioten: *Zeiñek egin dik...?*, *Zeiñek egin dik?* Orduan zaurituak deardatuaz erantzun: *Neurre neurren buruk* –Neroni neronen buruk–.

Au entzunik, beste lamiak onela agurtu zuten: *Eorrek eorren buruari egin badion, izurrari*.

## Olentzaro

Txilborretik oztu da agure zar negu; (1)  
izozteak elurra debekatua du.  
Eguraldi gogorra beraixteko balu,  
laister liteke elurra, aurraren jostailu

Aitona sutondoan, anka-zaiñean min; (5)  
elurra aztiatzen du ai ene! batekin.  
Tximinitik kedarra jalkitzearekin  
ago batez diote. Elurra da atarin.

Eguberri inguruko egun auetan, «Orixek» elurra gogoratzen du, eta Gabon giroko elur onek nere burura dakar Doroteo Azkueren olerki au:

Zelai, baso ta mendi,  
Eche ta bideak,  
Poliki agertzen ditu  
Elur chur churiak.

Sohillik dago dana,  
Chintik ez da aditzen,  
Ishellik zerutikan  
Elurra da erortzen.

Belauna-gora asi da igotzen elurra; (41)  
bigar bearko dira karrika bi urra...  
Endai eta peaki pertxuna ta aitzurra,  
errez dute ebakiko arro dagon lurra.

Emen, itz gutxitan Orixek adierazten digu gizon jantzia zala lanabes izen arloan.

*Endala* izena zuan ere olaren gabi-oñek ardatz aldeko muturrean indargarri zeraman burniak, (Berastegi, Elduaian eta Ibarran).

Berastegin *pegakie* deitzen diote elurra kentzeko erabiltzen duten palari, eta *pelaiki* Arabako Zalduondon azia edo alea bildu eta pillatzeko tresnari.

Azpetialdean, berriz, *pertxune* izenarekin ezagutzen dute bide-zainan eskuetan ikusi izan oi dan atxur zabala.

Aita, aspaldi dut gogoz Garazi Iriarte; (89)  
etxaldeko da baiña baitaratu zaite;  
garbi itzegiñik gaude, elkar dugu maite;  
bai-eske natorkiizu iñola al baleite.

*Urde gosek, ezkurra amets, duk esana, (93)*  
I aizen bezalako maizter ez izana...  
nola niakek aren gurasoengana?  
Joan gaituk; ni ere len zerbait izana.

Joan gu? gure izena aen al-da Koskor? (97)  
Igarabide'k zer du Iriarte-ri zor?  
An dago gure etxea Betelu'n ausarkor.  
Bere buruaren karga besterik ez du zor.

Orixeren aotik entzun digu Beteluko Igarabidetarren izena, eta nere ustez ere aaztutzekoak ez dire. XVIII garren mendean Igarabide izeneko ola gizonak baziren Gipuzkoan.

Baiñan itzuli gaitezen Naparroara. Beteluko Igerabide edo Igarabide, «Juanagorri» baserrian beren bizilekua izan zutenak eta «Juanagorri» izenez ezagutuak.

Gizaldi onen asieran, Domingo Igarabide zan Juanagorri baserriko etxejauna. Domingo 1915 garren urtean il zan, eta korrikalari, segalari eta petrikillo trebea izan genduen.

Nere ustez «Juanagorri» edo Igarabidetarren berri auek «Orixeren» «Euskaldunak» Poemaren mami barnean arkitzen dire: *Igarabide'k zer du Iriarte-ri zor? An dago gure etxea Betelu'n ausarkor. Bere buruaren karga besterik ez du lor Jarrai dezagun.*

Ikus dezagun korrikalari bezela zernolakoa zen Domingo Igarabide. Azpirozko *Ixeta*-ri irabazi zion apustu bat, Betelutik Ordiziara joan eta etorri. Domingoren beste apustu bat ere gogoratuko dizuet: Intzako *Domingoenea* aipatuta daraman etxean bizi zan korrikalari baten aurka egin zuan au: Betelutik La-kuntzara, Aralarren barrena. Apustu au ere Igarabidek irabazi zuen. Adierazi bearra dago ere *Juangorri* zaarragoa zala Intzako eta Azpirozko korrikalariak baiño.

Igarabidetar Domingo apustuzalea genduen, baiñan ez korrikalari bezela bakarrik. Izaten zuten beti aari bat etxean, burrukarako beti prest. Aaria ez zuen pentsuz bakarrik mantentzen, baizik ardoz eta txokolatez ere bai.

### Pestaburun ari-talka

Zelai betez dator Leitzar arranditsu: (239)  
ari ille-motza dakar, beltz nabarra musu;  
Leitza-larrei'ren berri aspaldian ez du;  
mî ikara ager-gorde ta bi begiak su.

Uda-lenez iru urte; eman-eza ardiri; (243)  
ezurrez, luze-zabal; ta bizkarrez, guri.  
Oraindi iñork ez dizu apustun ikusi,  
baiña ondoko kozkorak lenen-talkan autsi.

Ardi dunba bat zillar da jasotzekoa; (295)  
-tartekoak darakus egiñaz orroa-;  
Ituren'en eindako dunba tupizkoa,  
laister jakingo dugu zeïnek artzekoa.

«Orixek» gogoratzen digu *Ituren'en eindako dunba tupizkoa*. Bein baiño geiagotan lanean ikustea izan nuen Martzelino San Migel, Zubitako joaregillea zana. Ituren'en, berriz, izan zen, bai yoaregille izen aundiko sendi bat. Lanbide au bai zuten Juan Iñigok eta bere sui Domingo Mindegia. Bere emazte Manuela Iñigok erakutsi zion yoaregintzan eta Domingo Mindegia ere Iturenen il zen.

Domingo Igarabidearengana itzuliaz, onela entzun nion berarekin artzaimutil izan zan bati. Nik au ezagutu nunean larogeitamar urte gorako artzai izandako gizona zen. Nere berriemanle au artzaimutulle zen, *Juanagorri zarra* Arribeko legegizonarekin asarre xamar ibiltzen zanean. Il omen zan eskribaua

eta, Domingo Igarabidek zionez, bakartiko bide-gurutze baten agertu onen zitzaion zaldi eder baten gaiñean eta bi zakur, auek ere ederrak, laguntzaille zituala. Au ikusirik bat-batean Domingok bota omentzion eskutan zeraman zaku ut.s bat, esanez: *Oraindañekoak eraman dituk eta au ere eramantzak*. Esan naiez zalea izan zala bestenarekin zakuk betetzen, eta arpegira bota zion ura ere bestenarekin beteko zuala.

Domingoren seme zaarrena Martin Migel zan. Bere denborako aizkolari eta korrikari onenetakoa bezela bere burua azaldu ondoren, Amerikarako bidea artu zuen.

Juan Inazio izan zan Domingoren bigarren semea. Korrikalaria au ere, baiña bertsolaritzan ezagunagoa izan zen.

Bertsolari eta korrikalaria izan zen Santiago. Baiña petrikillotzan erakutsi zuen bere doai berezia. Sendaketa arrigarriak egindako gizona, Santiago Igarabide au.

Domingoren laugarren semea Fermin genduen. Bertsolaria au ere. Arjentinara alde egin baiño leen korrikari ona zala agertu zun.

Betelun azkeneko «Juanagorri» Antonio Igarabide Iriarte izan zen. Oroi gaitezen berriro ere «Orixetzaz».

Aita, aspaldi dut gogoz Garazi Iriarte; (89)  
etxaldeko da baiña baitaratu zaite;  
garbi itzegiñik gaude, elkar dugu maite;  
bai-eske natorkizu iñola al baleite.

Ondo gogoan dugu Antonio Igarabide Iriarte, Gipuzkoako alderdi baten eta Naparroko mendietan oso ezaguna. Antziñako gizona zekarkigun *Juanagorrik* gogora. Leze zuloko gizona. Euskeraz naiz erderaz mintzatzen zen gizona, aren mintzaerak bazun alako abesti aide bat.

Ibillera bizkorreko gizona genduen Antonio Igarabide. Bazter guztietara iristen ziren aren anakak. Eguzkia erleju. Argizkillarekin jaikitzen zen eta illunabarrean oeratzen gaur emen eta biar auskalo nun. *Juanagorriren* aurrezkikutxa edozein mendizulo zen, atetzat arri bat zuala. Musuzapian bildu eta arripean gordetzen zituan bere txanpon kondarrak.

Mesede egiteko beti prest. Ark etzekian ezinikusiak eta asarreak zer ziren. Antonio Igarabide etzan garai auetako gizona. Bere modura bizitzen jakin zuan, ume baten gisa. Eredu benetako barojianoa zen.

## Txerri-iltzea

Sei gizon eira dira: –kurruxka jakiña (197)  
bezperako barauaz barnak eragiña.  
Urratzean, jario bai laike zikiña,  
esterik ler ez daiten, erne da arakiña



Txonko zar, muturrekoz gizon bat il baitzun, (201)  
aurrera da urdeari atzemanaz legun.  
Belarritatik eldu, naiz dedin muturdin,  
Itzala bezain laister an ditu lau lagun.

«Altxa du karraisia, maiera jasorik, (209)  
amona pertzez dator Potxolon ondotik;  
pertza tinko jartzen du txerri-okozpetik.  
Aiztoa sartzen dio arek, ziñaturik.

Odolkia ordaiñez» Euskalerrietan; (293)  
*To, gero ekartzekoz diote bestetan.*  
Mutikoak, Urliren etxera nai joan;  
nexasak ere, beste etxe bat nai du aukeran.

Batean ur-intxaurrak ematen dutela; (297)  
bestean piku ondu ta sagar ximela...  
Amonak: etxeetan mintza ditezela.  
*Egun on ta bai, Andre, gutxia ar zatela.*

Ain egoki eta zeatz abestuaz, kezkarik ez det Orixek bein baiño geiagoe-  
tan ikusi eta bitzu zituala txerri iltzea eta bere ondorengo oiturak.

Urtarrillaren 17an San Anton eguna dugu. Batez ere abereak be-  
deinkatzeko eguna, eta, Berastegin adibidez, baserritarrak afari batekin ospa-  
tzen duten erdi-jai antzekoa.

Ikonografiaren barnean, San Antonio Abad edo San Anton txerri bat bere  
anka ondoan daramala azaltzen zaigu.

Txerria oso etxeakoa izan da gure baserrietan. Bere iltzea –txerri iltzea–  
rito bat da, lan-festa au ere, sendi eta auzo artean egiten dana.

Bei edo golde askoko baserrin –baserri on edo aberatsean– bi txerri il  
izan oi dituzte; bat udazkenean eta urtarrilla, otsailla edo martxoan bestea.

Auzo, aide eta adiskideeri eskeintza ordauntsuaren barnean ematen zaiz-  
kioten txerri puxkak edo *txerrimonik*, Tolosa inguruan, *gure txerri txikiaren pux-  
kak probatzeko* esanez, elkartasunezko froga bat agertzen digute.

Iñauterietan txerri ankak eta txerri belarrik jateko oitura izan da.

Bide-batez oartuko det Cornelio Agripak, filosofo, izarlari edo astrologo  
eta berri-emantzaillak errege koroatzeatzaz esandakoa bere «Historia de la  
doble coronación del Emperador –Carlos V garrena– en Bolonia, en el año  
1530».

«El día 9 de abril, a las 9 de la mañana, se puso un buey entero en el asador  
(...). Se colocó delante de la casa del rey: dentro del buey había un cerdo y den-  
tro de este un pato y una gallina, según costumbre inveterada de la coronación  
de los reyes».

## Olentzaro-Eguberri

*Olentzaro, Olantzaro, Orentzaro, Orentzago, Onentzaro, Orantzaro, Onon-zaro*, etabar. asko idatzi da. Adibidez ba Azkue, Pio Baroja, Aita Eusebio Etxalar, Jose Maria Iribarren, Jose Migel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Satrustegi, etabar. Neronek ere badet zerbair idatzia.

Olentzaroren sortzea iritzi ezberdinpean mugitzen da.

Onela esaten digu «Orixek»:

Begi-gorri ba dator Aiton Olentzaro; (305)  
urteak egun ainbat begi ta bat geigo;  
gurdia añeko sabel, aurpegi dana ago.  
Nondik nora sortu zan jakin bage nago.

Nik bakarrik esango det *aro* = denpora; *luzaro* = (a la larga); *luzaroko* = duradero; *urte-aro* = sazón, tiempo bueno o malo de un año; *urte-aroak* = témporas, etabar, eta *oles*, Azkuek, invocar; dei-egin, oes-egin.

Bi mugarri auen barnean ibiltzea uste det ez dela oso itxuragabekeria izango. Baiñan esaera au aaztu gabe: *En casa del jabonero, el que no cae resbala*.

Arlote onekin gauza bat argi dago:

Olentzaro etzan Euskalerra guztiko irudia, gizonaren irudiamenak iruditu duna, baizik gure Beterrikoa, Goierrin, gutxi, Bidasoa ingurukoa, Gipuzkoako itxas ertze-koa eta Napar mendialdekoa, batez ere. Onekin adierazi nai det, egun Euskalerra guztira iristen bada ere, leen etzala berdin gertatzen.

Onengandik eginak artua du izena (309)  
lengiek Subilaro esan zioten.  
*Subil* naiz *baztar-egur*, naiz *enbor*,  
etxe bakoitzetara bina dakartena,

dio «Orixek».

Su-bajuko sukaldean enborrak erretzen zituzten. Gau ontan pizten zen *Gabon-supilla*, *Olentzaro trunkoa*, *Orantzaro enborra*, *Onantzaro gabeko bazta-rrekoak* etabar izeneko enborra.

Leitzako umeek iruditzen ziren enbor txikienakin, eta aiton-amonak pago aundienakin.

Aiako «Agerre» baserriko etxejaunak esaten ziran nola Iturriotzeko bide-ostatuaren sukaldera bi beiek karreatu zuten pago zugaitz osoa.

Gaurgero mutikoek eiten diote irri, (321)  
erabilliz errian txori-mozorri orri.  
Gauerdia baiño leen du sorgin-afari;  
mozkor au bizkarrean diote kantari:

Onentzaro begi-gorri;  
non atzia duk arrai ori?  
–Bart arratseko amaiketan  
Anbulute'ko arkaitzetan.

Arribeko Onontzaro, Naparroko Araitz Baillaran, leio edo balkoietan jartzen dute. Trapuzko panpin trakets bat da, lastos edo belarrez betea, Leizaokoaren berdiña.

Baiñan Olentzaro su inguruan berotzeko zalea dugu.

Ikazkin onen etxe-sarrera tximinia da, geienbat.

Au Jainkoari eta au Andre Mariari; (329)  
erdikoa atariko eskale otzari.  
Irurak sukaldea digute onetsi,  
Onentzaro'k ez dezan laratzik ebatsi.

Lesakako Olentzaro su-garretan zun bere amaitzea.

Bedaioke Olentzaro zalea izan da labatzetikan zintzilikatu eta egoten.

Elduaiengo umeeri esaten zioten:

birakatu ezazute gaztañekin erabiltzen dan danboliña, tresna onen soinuarekin Olentzaro etxe-ingurutik urrundu dedin.

Lizartzan, berriz, maitea zuten *Olantzaro*, afaltzeko eser-lekua gordetzen zioten.

Sukaldea jantzirik jakiz ta egurrez, (337)  
illuntze ederra bekar Jaungoikoak onez.  
Mutillek etxez-etxe kantan asi bitez,  
zurrei birau, zabalei eskerrak egiñez.

Huitziko Gabon egunean onela abesten zuten:

Orantzaro buru aundi  
entendimentuz jantzia,  
maiztar etxean  
eran omen du  
amar pintako zagia,  
aittona tripa aundiya.

Arabako Ullibarri-Arana urixkan, aintziñako Gabon saria, etxean egindako ogi arroa, *soba* edo *sopil* izenekoa izaten zan.

Batzuetan ogi au lukainka edo sagar batekin betetzen zuten eta labeen erretzen utzi. Oitura au aspaldi galdua dugu.

Baru baita, afarixka egin dute etxean (361)  
gero kontu-kontari edo-ta musean  
nor bere etxean edo adisdidenean.  
Meza alaiara doaz gauerdi danean.

Eta zer afaldu?

Baserrin –Nuarbeko auzoan entzuna–: baatxuri zopa, bakallaua, gaztai-  
ñak, sagar konpota edo *ardosagarrak*, ardoa, *zurrapote*, pikuk arduakin eta  
kanela zotzakin egosita, eta kafea pattar txuria edo gorriakin.

Sorgin-afaria da Mezaren ondotik (369)  
–gau aretan sorgiñak ez dute batzarrik–.  
Bakoitzak apaltzen du al dezakenetik:  
ez da palta aulenean saiets ta azpizunik.

Afaldu ondoren –Orixek esaten digun bezala–, Gauerdiko Meza, eta ondoren,  
etxean, *Sorgin afaria*, gauerdia eta sorgiñak ondo uztartzen direla, ezin uka.

## Inauteri

Dakizutenez, antziñan, uri eta auzo, kale ta basetxe geienetan ospatzen  
zen lñauteria, lhauteria, Aratuztea, Karnabala eta abar izenekin ezagutua.

### *Gizakunde*

*Gizakunde* len-eguna (25)  
jainko txikiak diguna.  
Mutil gazte ta gizon elduak  
zaiñetan alaitasuna.  
An jauzi eta emen irrintzi,  
biguntzen dute belauna.

### *Emakunde*

Urren emakunde-eguna, (163)  
jainko txikiak diguna.  
Argi orduko mutikoari  
oska asi zaio amuna.  
Ez du nagirik; argiago  
du atzoko bekoki illuna.

### *Orakunde*

Azken *Orakunde*-eguna  
jainko txikiak diguna.  
Neska ta mutil, atso ta agure,  
dantzan ikusten tuguna.  
Oroen dela itzak berak du  
aditazpen ezaguna.

Nik entzutea izan nuanez, izen auen ostegunak ez ziren erri guztietan egun berean ospatzen, azken urteetan beñepein.

### Gizakundez

Neskak ikusiz mutiko,  
lepotik elduko dio:  
–*Zer agintzen duk?*– Or ditun  
*bi sos jostorrazak erosteko.*  
Eskaiñi duna luzatu arte  
ez du paketan utziko.

Zuzen dabil «Orixe», bai. Neronek Huitzin onela det jasoa: neskak mutillari bat-batean lepotik eldu eta ala zion: Zer aintzen diazu? Erantzuna izan zitekean irriparra, edo musu ematea, edo eskueskain goxoak, musu-zapi bat eta bar.

Emakundez, jolas berean barnean, mutillek joango zitzaizkien neskeeri galdezka.

«Orixek» onela esango digu:

Neska lepotik artzea (211)  
gaur mutikoen xedea...  
–*Zer agintzen dun?*– orratza zitzaz.  
–Nik? sukaldeko kea.  
Ezak, begien agurtziketan,  
eure biziko nekea.

Bezperatik burruntzia (169)  
txanbil-ertzean jarria,  
–urte osoan erdoi ta kedar  
ba du garbitzen premia–  
koipez legun, zatarrez igurtzi,  
utzi du garbi-garbia.

Odolki-egunez baiño (175)  
batere ez asarreko.  
Bera baiño len asiko-bildur,  
mutillak amari dio:  
*Sar zazu lenengo puska,*  
*atera madien uso.*

Lenengo puska etxean, (181)  
ala zan oitura zarrean,  
ziria bete, laisterkan utzi,  
berriro bete naiean,  
amak amañik sartu-okela  
an geldi zan ondarrean».

Ziztor miztor *Emakunde*, (187)  
urdaia edo arraultze;  
andre zabala eman eiguzu  
bat ez balin bada bertze».

Emakundez, Huiziko neska-mutillek puska-biltzea irtentzen ziren. Ateak joaz, etxeak oiuz bixitaru: *Txistor mistor, Emakunde; ematen duna leiala, ematen eztuna zimurre.*

Orakundez Orixek onela dio:

Illa dute zekorra, (377)  
–ikullun ba zan, baikorra–.  
Ari barnera eragjiteko  
ba da arraultze ta ziztorra.  
Dantzatze'ez danak, bearko  
dizu ixiritzeko mozkorra.

Janaldia bukatzean, (383)  
ezin-egona lurrean.  
Aniz'ko Gonix dantzan asten da  
oin batekin erpiñean.  
Berak dantza, berak kanta,  
almuten baten gaiñean.

Tripa-pesta lñauteriekkin sendo uztartua dugu, antzin-antzinatik. Oroi gaitetzen Hitako Arziprestearen esana: *Gizarajoa geiegi janda zegoalarik eta aragi askorekin ardo asko edanda, puztua zegoan, erdi-lo:*

*laute, laute, zingar t'arraultze.*

Nekazari etxeetan jateko duten oitura, negu luzean batezere, azaltzen da lñauterietako otorduetan. Txerrikia ugari, esan zarra ez detenez. Txerri anak edo txarranak, txerri muturrak eta txerri belarrik, torradak dituztela mai-azkena, postre edo gaiñekoa bezela.

Egun ontan ez errenik (413)  
dantzarako gai ez denik.  
Baiña bi anak sendo dituna  
limur da belaunetatik.  
Burus arro, mingaiñez bizkor,  
ez da azpira dezakenik.

lñauteriekkin dantza aipatu bear.

Guiche'ko kondeak zionez, 1671 garrengo urtean, *Euskalerriko lñauterietan ez dago dantzan egin gabe egoterik.*

Iztuetak, euskal dantzei buruz Jovellanosek idatzitakoak irakurri ondoren, orrela dio:

Noraño jasoko ote zituzkean, euskaldunak, nor bere erriko jaietan (...) da lñauteriz zegizkitenak, ain bikaiñak, ikusi izan balitu...?

### *Azari-dantza*

Oillakunde, geienez, (575)  
Astelen-iaute-egunez.  
Izenak berak dion bezala,  
oillo eguna da biltzez,  
*Azari-dantza* esan zioten  
giputzek beren izenez.

Mutil batek oilloa... (641)  
makilla-puntan daroa.  
Beste mutillek makilla banaz  
darabillate auzoa.  
Senek bana bil dutenean  
jasoko dute zangoa.

Berueten, Astelenez zan lyote bigarrena. Gosal ondoren puska-biltzea bordaz-borda, etxerik-etxe. Auspo soñua izango zuten bide-alaigarri. Mutillak, arrautz, urdai eta txistorra eskuratzen zituzten. Etxean neskarik ba zen, onek oloa emango zieten. Bi mutillek, egaztia artu ta anketatik loturik, bizkarretik-bizkarrera daramakiten agatik zintzilik zekarten.

Ezekiel Aranok onela abestu zigun, Berueteko ostatuan.

Orain asi bear det  
neskatxa oiekin.  
Konformatzen badira  
nere esanakin.  
Ortze ibiliko gera  
makil zaar batekin,  
konbidatzen gaituzten  
ollotxo banakin.

«Orixek»:

Ostatu eta plazara, (647)  
oiu-irrintziz dantzara.  
Azaritxoa erdian utzi  
ta, oillodunen bi illara,  
inguruan ai erakutsiz,  
dantza dirade ontara.

Axarko, lapur, zorritzu, (653)  
zenbat ardikume galdu?  
Bana-banaka oillo oetara  
begiak ortzak zorroztu.  
Guk jaten ditugun artean,  
ik egin ezak baru.

Aipatutako lztuetak, beste dantza batzuen artean *azari-dantza* ezaugarzaten digu, lñauteri giroko dantza arrunta.

Eskerakoan, basarri-atadietan dantzaten dire gazteak. Gero, an dijoaz plazara berriro dantzari jarraitzera.

### *Antzara-jokua*

Ele-eder aurrean doa (733)  
geldiaraziz pausoa.  
Bizkarrez gerri erakusten du  
Maitederren gerrikoa.  
Zugaitzen bezain trebe zaldian,  
ebasten dio gogoa.

Danboliñak artean, (739)  
zelaiaren ertzean,  
buruzagian soiñua asi du  
asti geldi ederrean...  
Beorak ez al balitezke  
ark luzke bere mendean.

Antzarik ederrena (745)  
zintzilik daukatena.  
Bi zutabe ta goi-abeagaz  
egíña duzu tresna.  
Lehen-kolpean erauzi dio  
lepo luze ta lerdena.

Uztegi, Gaintza, Intza, Azkarate, Lezeta etabar urixketako iotetan ospatzen zen *antzara-jokua*.

Beteluko Astelen-iotean izaten zan ere *antzara jokua*.

*Antzara-joku* bakoitzean egazti auetako iru zintzilikatzen zituzrten. Ikuski-zuna geiegi luza etzedin, Betelun galerazia zegon antzar lepoa olio z igurtzitzea.

Antzara-jokue amaitzean, zurezko uztai, urkabea zeritzanetik beretik, iru piperopil aundi berrogeibat zentimetrokoak zintzilikatzen zituzten, da piperopil bakoitzetik berriz, metal uztaitxoak dilindan. Zaldizkoak, andik igarotzean, eskuan zeraman kakoa utzi bear zuen uztaitxoan katiaturik. Eta guzietan kakoa ezarririk uztean, jokia amaitzen zen. Antzara-joku naiz urkabeko piperopilletako ba zuten txistu soiñu berezia.

### *Axurtaro*

Zozo-mikote bero da asia; (1)  
eldu da 'Apiril biribil!  
Martxo gogorak aurrera ardirik  
artaldeetan ezin il.  
Eska ditio, beti bezala,  
aurten ere beste egun bi;  
esker gaiztoaz bialdu dizu;  
ez nauk iretzat opari-il.



Nere ardirik txarrenak zekik (9)  
egiten zazpi oin-salto.  
Bizirik utzi ditidakenak  
ba dituk urren-urteko.  
Otsa-il baiño ankerrago aiz,  
katamotz-il odolgiro.  
Aurten il adi goseak,  
eta neguak berriz biztuko.

Au zerbait borobildu zagun.

*Zozomikote egunek, tristeak eta illunek*, entzutea izan nun Azkaraten.  
(Martxoaren azkeneko egune eta apirillaren aurrenekoa).

Azkarateko artzaiak esana:

*Ai martxo, martxo, nere ardi txarrenak egingo zioz errekarri salto.*

Aranon jaso: *Ai martxo, martxo, ez nauk ire bildurtxo.*

Amezketan: *Ai martxo, martxo, emateik esker gaixto. Nere aarikoik txarrenek eraite zioz errekarri salto (Aarikoia = aari txikie).*

*Orain zozomikoteak dituk*, esaten zan Orexan artzai bizimoduaren inguruan, apirillaren aurreneko bi egunetan.

Eta zer ziren *zozomikote* izenarekin ezagutzen ziren egun auek? Obeki esateko, zer adierazi nai zuten? Martxoarekin negua igaro zala eta artzaiak, zorra ordaindu gabe, burla edo irri egin ziola agurra bezala.

Artzaia eta martxoa etziran ondo konpontzen, baiña, denborakin, urte batzuen barruan arremanetan jarriak ziren eta erabaki au artu zuten alkarrekin:

Artzaiak bere artaldearen ardirik ederrena martxoari emango ziola, au bear dan bezela portatzen bazan, egualdi ona egiñez.

Martxoa bere itza betetzen zijoan, baiñan artzaiak au ikusirik bururatu zitzaion agindua ez betetzea, ardia ordaindu gabe uztea, onela edo antzeko gauz bat esanaz: *Ai martxo, martxo, nere ardi aulena errekarri errez egiten zioz salto.*

Martxoak au entzunik, apirillari eun-terdi eskatu zizkion. Eundalako ekaitza asi zuen, artalde guztia galtzeraiño. Artzaiari aari bat bakarrik bizirik gelditu zitzaion, eta au bizkar gaiñean edo lepoan bordara zeramala, mogitu zan batean adarrak artzaiari begia atera. Zozomikoteak ipui erakuspide bat dire.

Artzaiak aurrez artaldea du, (65)  
ardi bakarra atzetikan...  
doi-doi bizi da Martxok utzita;  
bizkor daiteke soroan;  
belarri biak lurrera ditu  
muturrarekin jokoan;  
begiak ere zulo berera  
zuzentzen oraiñoakoan.

Lau egun bage jasoko ditu (73)  
buru, belarri ta begi;  
artzaiak zitzu dagionean  
ez geiago belarri-nagi;  
baten urrena bela bestea  
buruarekin itzuli  
bost egun bage artaldean da,  
ez duke jun nai atzeti.

Berastegiko «Borda-txuri» baserrian esan ziraten maiatzerako ardik bizkor-  
tzen asten direla eta artaldearen azken muturrean aulenak gelditzen.

Beleak au ikusirik, onela esan omen zuan: *Kua, kua, atzetik dijoan ori lais-  
ter neretzat.*

Abaltzisketako «Sasin-Barrena» baserrian bizi dan Damaso Ipintza Zuria-  
rrain artzaia onela mintzatu zitzaidan, bein batean:

Aurrena beleak –banaka edo biñaka ibiltzen omen dira, geienbat– begiak  
jaten omen dizkie *azienda* edo ganadu ildakoeri, eta, gero, *kua, kuarekin* putreeri  
deia egin eta auek okela edo aragie jan.

«Orixeren» Laisterka-apustua izenburua daraman gaiakin aipatutako *Jo-  
nagorri-tarrak* oroitzen ditut.

#### *Doniane gaua*

Mutillek eman dute mendian atsalde,(197)  
arba, añar, arantz, ote, sugaiaren eske.  
Aien poza nork esan, eskolarik bage?  
urtean geixagotan balitz Doniane!.

Mutil-sail batek, ba du arazo larria;(217)  
artzen du, jarioa zedukan zagia;  
ardorik ezin edan, pikez itsatsia,  
sorgin igartuaren iduri bizia.

San Joanetara urbidu gera, San Joan bezpera gaubeko suak berotzen  
gaitu.

San Joanetzaz mintzatzeko, kontuan eduki bearrezko gauzak auek dire,  
batez ere.

Eguzkia, ura, sua, ate ta leio dotoretzea. Belarrak. San Joan goiza. Baiñan «Orixeran» eskutik itzuli gaitezen arira.

San Joan bezpera gaubean, gure plaza edo emparantzan, baserri inguruan eta bide-gurutzetan sua pixtutzeko oiturari jarraitzen zaio.

Su au pizteko erabiltzen diren belarrak, aurreko urtean San Joan eguneko mezan bedeinkatuak dire, erri batzuetan beintzat. Belar auek *belar-onak* izena daramate. Eriotzaren bat etxean gertatzen zanean, *belar-on* auetako esku-bat egosi eta ur orrekin ildakoen gorputza garbitzen zen. Baita tximista zanean erre ere.

Erri batzuetan mutilkoskorak eta gazteak makil muturrean zagi edo zato zaarra San Joan bezpera gaubean su-garretan jarri eta ke tartean berarekin korrika ibili, oiuz *Erre pui erre...*

Sua itzali ondoren –adibidez Gorritin– gazteak puska-biltzera irtentzen ziren.

San Joan goiza urte guztiko alaiena dugu. Goiz onetan, Eguzkia dantzan sortzen da.

#### *Belarrekoan*

#### *Sega-apustua*

Lau jokatu ta, bi ta bi geldi, (305)  
auntzena bosgarrenean;  
burrukan ta aizkan Manex nagusi,  
lurte beste bietan.  
Errian buru au dala ere,  
Uitziarrak kezketan,  
Manex oriek maisu baitziran  
belar-epaite-lanetan.

Manex auek Beeko Naparrokoak ziren. «Orixek» bazekien zer esaten zuen. Segalarik, pertzkonpontzaillek eta tellagiñak Iparraldekoak bai ziren, geienbat.

Neronen paperetan arkitzen den eskuz-idatzitako kuadernu baten, onela irakurtzen det:

Item, a un francés le di tres reales por cortar la hierba. Año 1758. Legorreta.

1791 garrengo urtean, Tolosan bizilekua zuten jende arrotzen artean bi segalari prantzés agertzen dire.

Pedro José Iribarne, segador, natural de Ozazen, abispado de Olorón, casado con María Josefa de Guruzeta, natural de Mutiloa. Lleva 22 años en la provincia.

Francisco Belchun, segador, natural de Eleta (Francia), que lleva avecindado 20 años.

Oroi gaitezen *natural de Eleta* esan dugula, eta oar gaitezen «Orixe»-ren abesti ontaz:

Asi da: *Ni itzai nenbillelarik* (281)  
ikazketan Belkiun'en,  
maiz oi-bezala, erriko ta arrotz  
asiak itun izkatzen.  
Batite Heleta'k sei lanbidetan  
Larraun guzia markatzen:  
pilotan, segan burrukan, aizkan,  
aizkoran, karga-jasotzen.

### *Eultzia*

#### *Odei beltza*

Andik datorren odeia jo oi da (657)  
denetan lazkarriena;  
arto ta gari, zoztorrik utzi  
zituen orain urrena.  
Eultziak ere eraman ditu  
iñoiz errekan barrena...  
Beztu baledi, nekazarien  
bildur-ikara ta arrena!»

Sorgiñen amak, ala agindu ta, (713)  
ezkila jotzen Katalin,  
neska gaztea sorgindu dala  
jenderik oar ez dedin.  
Otsa aditzean, aztua baitzan,  
apaiz-neskak usu ta arin  
ontzi-garbitze-lanak utzita  
nagusiari otsegin.

Loa astuna du; bitan, irutan (721)  
otsegin; azkenik: 'Zer dun?'  
Dandara aditu, leioa zabal,  
erri-inguru denak illun.  
Eskalapoin bat zeukan oipean,  
eskumakilla ainbat lagun;  
arri-odeia zetorrelarik,  
eskuiñean jantzi oi-zun.

Estu ta larri Elizara da (729)  
non dun arao-liburu.  
Uda guzian toki jakiña;  
alare ezin du gaur buru.  
Kopeta jo ta gogora zaio  
gauzak irauliz inguru,  
zer gerta ere, lotarakoan  
utzi zula oaburu.

Odeiak luza, jendeak itxoin, (785)  
etzaio lertzen sabela;  
ateratzeko gertua apaizak  
eskuin-oiñean txinela.  
Otoi guziak bukatu eta  
berritzen ditu berela.  
Aren otoitzez iduri zaio  
zaldiak gelditu daudela.

Odeiak dio *-Non sartuko naiz?* (801)  
Apezak: -Sar adi emen;  
txinela airean botatzen du,  
ta odeia sartzen da barnen.  
Erdi-odeia suntsitu eta  
garbi eguzkia agertzen.  
Baztar-odeiak xirpila ta xarpila  
iparrak ditu garbitzen.

Emen, benetan egokia dan irudimenezko edesti au esango dizuet.

Goizuetan, «Peru-enea» izeneko etxean Udaletxearen aurrean ain zuzen,  
Ezponda izen oroigarri txarreko gizona bizitu omen zen.

Il zen Ezponda, baiña ekaitz egualdietan, laiño beltz (irudi) barnean bere  
zaldi perra soiñua Goizuetan entzuten.

Laiño zatar-illun-bildurgarri ura nola urrundu? Apaizaren konjuruakin.

Bein-batean konjuro onek bear zuan indarririk ez omen zuan izan, eta apaizak  
bere ezkerreko ankaren bota bota omen zuan Ezponda-laiño aldera, eta  
bai laiño ura bereala izkutatu.

Beste-batean ere konjuroa naikoa etzan izan laiñoa desagertuarazitzeko eta  
apaizak bere kurutzeaz baliaturik Mandoegí mendiko zulo batera eraman zuan.

Esponda barnean zala, erru-erdia edo fanega koarta bat liñu azia zabaldu  
zuan koba aurrean, deadarkatuaz: *¡Ale aña urteko!*...

Liñu azia benetan oso txikia da, eta apaizak zionez Ezpondak ale auek  
aiña urte igaro bear zituan zulo barnean.

Baiñan barrungo erantzuna etzan nolanaikoa izan: *Nik oiekere beteko*...

Konjuro umoretsu batzuek gogoraziko dizkizuet. Neronek jasotako berrietatik artuak.

Aiako uriaren auzo bat Altzola dugu, eta bertako baserrietako batek  
«Semeola» izena zeraman.

Egun batean arri-jasaren bildurrez arkitzen zirenean, «Semeolako» amonak  
bere gizonaren gerrikoa estola antzera arturik, onela konjuroa egiten zuan:

Karga Izarraitz, deskarga Ernio, guarda Altzola, *en demás* Semeola.

Amona aren otordu aurreko otoitzan asiera onela izaten zen:

Gure Jainkuak eman deigula osasuna eta pakea, eta goiz-arratseako esnia, eta eguardirako eltzia aragiz betia. Ondoren *Aitagurea*.

Onen antzekua da Anotan entzundakoa:

Jaingoikuak eman deigula osasuna eta pakea, goizarratsetan taloa eta esnia, egoardian eltzea okelez betea. Intentzio ortarako errezatu eta jatea.

Ezkurran trumoikada asi eta konjuriua egiteko apaiza falta. Jendeak batak-besteari esan: *Apazarik ez konjuriua egiteko*.

Ontan sakristaua atera omen zan eta jendea bildurturik ikusiz, onela esan omen zioten:

*Ez larritu!, konjuriua neronek egingo det*. Ontarako eliz-atarin bereala jarri omen zan esanez:

Olegi (Ezkurrako mendi baten izena), Belarregi (Ezkurrako beste mendi baten izena), Atakaaundi (Erasungo mendia) lerrai! (emen, Erasunen, erauntsia bota).

Otsagiko Muskilda basaelizatxoan apaiza eta ermitazaina arduradun ziren.

Baiñan arri-jasa bildur ziren egun batean ermitazaina bakarra arkitzen zen eta berak konjuroa onela egin:

Libérame a Aezkoa (bere sort ibarra)  
Muskilda también.  
Zatika Valcarlos  
La Francia también.

Erri batzuetan, adibidez Abaltzisketa eta Amezketa, apaizari konjuroa egi-tearen-alde urteko ematen zitzaion gari, arto edo babarrunari *konjuro-laborea* deitzen zitzaion.

*Amonaren illetak*

Malrauxek dionez, gizona bakarra omen da eriotza berarekin daramala dakiana.

Eliz-lurra etxearen luzagarri benetako bat izan da.

Ongi zekian Garazik lenik (1)  
illeta-jantzia zer zan:  
jantzi orretan, pozenik zala,  
Elizara joan baitzan.  
Zerimoni au bearra zuten  
Naparroako oituretan,  
il-obietan etxeandretzen  
baitzan egunean bertan.

### Bizkaiko Lege-Zarrak onela dio:

Otrosi, dixeron: Que havian de Fuero uso y costumbre y establecían por Ley, que si acaeciére que alguno que tenga Casa y Solar con su Caseria y fuessas en su Iglesia, la dotare, o donare o en su fin mandare y dexare a algún Hijo, o descendiente o heredero, suyo: que en tal caso, los otros Hijos o Hijas (sin embargo de la tal donación, o manda) tengan titulo y derecho de se poder mandar enterrar y sepultar en la tal fuessa. o fuessas de sus Padres o Madres: Y esto que no les pueda impedir el heredero aunque diga que los tales sus hermanos Hijos de Casa tienen (sin aquellas fuessas, y sepulturas) donde se enterrar y sepultar (...).

1787 go. apirillaren 3an Karlos III garrenak emandako legeak eliz-barneko lur-emateak debekatzen zitun.

Garazi, ezkon-meza ondoan, (25)  
il-obietan eskaiñiz,  
goienik barren, denetan koka  
apaizarenetik asiz.  
*Pater* bakoitzaz, zortzikoa du;  
etxekean, bein ta berriz.  
Ez bedi geldi etxekorik  
an lurreko otoitzaren premiz.

Etsairik ez zun; izanik ere,(33)  
illen bitartez aiskide,  
biotz zabalez lurperaturik  
gorroto eta asper-bide.  
*Euskalerrian illek agintzen*  
egia ez balitz ere,  
egun ontako jardun-bideak  
goitik ematen du fede.

Eriotz bat gertaturik, auzoko etxe bat edo biri, urbillenekoak, adierazten zaiote aurren-aurrea berri-goibelgarria. Adiskidetasun onenaren barnean edo berdin asarrea gáindituz. Egoera guztietan auzoa beti prest arkituko da oitura legezko egin bearra betetzeko. «Euskalerrian illek agintzen».

### *Amonaten eriotza*

Aide ta aiskide, lagun, ezagun (169)  
illari elkarren leian  
gorputz-aurrean esan oi zion  
bakoitzak al zun neurrian  
asma zuena; zitela, azkenik,  
gertatu zeru-erdian.  
Ez da aunitz urte galdua dela  
oitura au Euskalerrian.

Gaua zan, itsa; jende-mordoa (177)  
bildu zan aipuetara;  
lenik, agopez, oroitx onen bat  
ba dute zeruetara (...).

Auzokoek, adiskideek eta aideak il-etxean gauba *bellan* (Berastegi), *gaubelan* (Azpiroz), *gauillan* (Arantzan) igaroko dute. Berastegiko *bellan ardo aundie* artzen zuten. (Ardo goxoa eta galletak).

Naparroko erri batzuetan samiñ-agurra bezela esanaz: *Osasuna enkomendatzeko* –itzuliko det. *Osasuna ildakoaren arimaren alde otoitz egiteko*.

Ehortzikoan, eramailleek, (289)  
soillik dute gosaria;  
ilkizunetan, gosaria ta  
bai bazkari ta afaria.  
Erri guziko nausi ta aideek  
egiten dute eguerdia;  
maiztarrek, berriz, guziek, naski,  
arratseko janaldia.

Zenduaren eramaille aueri *hilkharreariak* deitzen zioten Eskiule ta Urdirbarben, eta *hilketariak* izenarekin ezagutzen ziren Baigorrrin.

Nor dire «hilkharreari» eta hilketari» auek? Uri baten baiño geiagoetan zenduaren auzo urbillenekoak.

Illaren bizkar ase nai eta (305)  
Apezpikuak gaiztetsi;  
eskomikuaz keiñatuta are  
sabelak ezin siñetsi.  
Naiz Bataioan, naiz Eztaietan,  
ez ainbat ardo ta zitzi...  
Eskurrarraren kontu bitxia  
esanik nai dizut utzi.

Gizagaiso bat iltzear zegon. (313)  
Semeak koko-erritik  
illetarako ardoa dakar,  
oinak zaizkion artatik–.  
–*Aita, diotsa, illetarako  
ekar dut Peraltakotik–  
Ikusi, seme, nolakoa dan...  
Txurrupe artzen du basotik.*

Ai, seme, seme, ba lego ontatik, (321)  
are bizi nindekezu

Nere ikerketako ibilialdietan, «Orixe»-k esaten digun onen berdintsua Auritzen entzuna naiz.

Orbaizetako mutil gazte bat Auritzera bere mando eta zagi uts bat ardoz betetzeko asmoarekin, eldu omen zan.

Karreto au asteroko bete bearra zuan, larunbatez geienbat.



Baiñan oraingo ontan bere ibilialdia asteazkenez egin zuan, eta ardosal-tsailleak galdetu zionean nolaz ta egun aldaketa ori, gaztearen erantzuna onela izan zan: «Aita iltzeko-zorin arkitzen da eta ardoa bere elizkizunetarako bear-bearrezkoa dugu».

Gaztea bere etxera itzuliz, Auritzen erositako ardotik baso bat eman bere aitari. Au eranik, gaxoak onela esan omen zuan: *Yo con esto aún ya me pondría bien 'bixkorriko'.*

Ilkizunetan ari bizkor bat (337)  
bizirik, Eliz-barnean  
*Domine Iesu Christe* entzun arte  
daukate Eliz-atalean.  
Orduan sartzen, opera-rako.  
Eskaiñia dutenean,  
berela atera, aragi egin,  
apaizentzat bazkaltzean.

Oparitzaz, Txomin Agirrek idatzia du lan interesgarri bat. Bere izena «Idia Elizan» eta 1917 garrenean argitaratua, ain zuzen. Gorosabel ere mintzatu zitzaigun, beste batzuen arten opari ontaz. Eta 1771go maiatzean onela dio Gaztelako Goieneko Auzitegiak:

Que quedaba prohibida por indecente la ofrenda del par de bueyes que se llevaba al atrio de las iglesias.

Baiñan oiturak legez ez dira errez baztartzen. Erriak txokoratuko ditu gaurkotasuna galdutako oiturak, bere barnean bizi ez ditun oiturak.

Albiasun, Naparroako Larraun ibarrean ospatzen diren elizkizunetan kilo bat txaal-okela, ogi bat eta ardo botella batzuk eskaintzen ziren. Erasunen, zenduaren etxeko batek edo etxe onen izeneko batek ogi bat trapu baten bildua. Berroetan –Baztan ibarrean– zendua mutila bazan ollasko bat, eta neska bazan, ollanda. Opari au ildakoaren auzoko batek egiten zuan.

Areson arizko maindire bat eskaintzen zan eta apaizak aldaretik erakusten zuen oparia. Azkarateko oparia ardi-izterra eta sei ogi izaten zan.

Ogi erdi bat izaten zan Baliarraingo maisterra edo errenteroaren ofrenda, eta ogi osoa etxejabearen oparia.

Zumaiako San Migel Artadi auzoan lau anega gari aurreneko klaseko elizkizunetan, eta bi anega bigarrengoan.

Arantzan ezagutu ditut erritar batzuk nola arbasoek zikiro bizia eskaiñi izan zuten, ildakoaren etxeko batek eramana .

Azkenik aipa ditzagun *argi-ogik*, Berastegin *erre-espezik* izenarekin ezagutuak.

Arri batek  
sekulako estaltzen du  
izenik den andiena,  
mundu eroak emen ainbeste  
estimatu oi duena

(Au, Aita Kardaberazen olerkia da).

Sarritan, «Orixek» gogoratzen digun bezela, elizkizunak eta lur-emateak jan-edan geiegikeriekin amaitzen ziren.

1531 garrenean Iruñan izan zen Eliz-biltzarrak, elizbarneko bazkariak debekatzen zitun.

1539-ko Erre-lege batek asieran onela dio:

para que el juez de residencia en Vitoria informe sobre las comidas, bebidas y gastos excesivos que se hacían en los entierros.

Gipuzkoako Lege-Zarrak elizkizun eta lur-emateko bazkariak debekatzen dituzte, *sino es a los Parientes hasta el tercero grado*.

Gure Batzar Nagusiak ere kezkatzen ziren geiegikeri auetaz.

Gorosabelek trebe asko esan zuana:

Ildakoek bizirik zeona lurperatzen zuen.

Oroi gaitezen leen esana: Erriak berak baztertzen ditu bizi ez ditun oiturak.